



**BELAUNALDI
ARTEKO
HARREMANAK**

CH. N.

**GIZA
LIBURUTEGIAK
2018**

GIZA LIBURUTEGIAK 2018

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

CH. N. eskertu nahi dugu Jatorkin elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Belaunaldi arteko harremanak

CH. N. "Belaunaldi-arteko harremanak, haien amek bezalakoa izan nahi ez duen belaunaldia eta atzerritarra izateari ezin utzi ahal izana" izeneko liburua kontatu zigun, hain zuzen, Kataluniako jatorri bereberreko idazle marokoar baten testigantza erreal batean oinarritutako liburua. Hala dio:

"Bazen behin, Marokon jaiotako baina Bartzelonan hezitako neska bat. Neska honek beti amesten zuen amaren pausuak ez jarraitu behar izatearekin. Bere ama, kultura eta erlijioaren pausu zehatzak jarraitzen zituen emakume bat zen, baina berak, nahiago zuen bizitza libre eta independente bat eraman, eta bere ametsak bete.

Baina bidean gertatutakoa ez zen inondik inora amesten zuena. Berak askatasunarekin amesten zuen artean, amak lehengusu batekin ezkontzeko eskaintza egin zion. Lehengusu hau, Marokon bizi zen, helduagoa zen eta ezer gutxi zuen maitasun istoriotik". CH. N.-ek hala dio, hau bera ere, kultura marokoar eta musulmanaren parte dela, hots, neska ez dela mutilaz zertan maitemindu behar, familia bera baita zeure bizi osoa elkarbanatu eta harekin biziko zaren gizona aukeratzen duena. Berdin du nola pentsatzen duen, nola tratatzen zaituen edota antzekotasunik ote duzuen.

Istorioarekin jarraitu du: "Hortaz, neskaren lehen inpultsoa etxetik ihes egitea izan zen, baina ondoren, pentsatzen hasi zen eta konturatu zen erabaki horrek amari kalte handia egin ziezaiokeela, esaterako, hartaz gaizki esaka ibiliko zirelako. Eta berak ez zuen haren ama halako egoera batean ikusi nahi. Beraz, barnean ihes egiteko pentsamendu hori bazuen ere, beldurrak, geratzera, lehengusuarekin ezkontzera eta bizitza hori bizitzera eraman zuen. Orduan, ikasketak utzi eta senargaia Marokotik ekarri ahal izateko lanean hasi zen. Bere bizitza erabat aldatu zen bat-batean: bera baino 20 urte zaharragoa den gizon horrekin ezkontzeko onespena eman zuen, emakume musulman batek jakin beharko lituzkeen lanak egiten ikasten

hasi zen, beloa janzen hasi zen (nahi ez bazuen ere), kalera irteteko askatasuna galdu zuen, beti zelatatua zen...

Denbora batera, Marokora joan eta gizon honekin ezkondu zen. Haurdun ez geratzeko pilula batzuk hartzen zituen, baina egun batean, akats bat dela medio, haurdun geratu zen. Hala pentsatzen zuen bere barrurako: "barruan daramana nire semea da, baina ez dut hala sentitzen". Inoiz nahi izan ez zuen zerbait zen, berea baino, bere amaren zerbait zela sentitzen zuen. Ohi baino gogorrago lan eginez, era naturalean abortatzen saiatu zen, baina azkenean, umea jaio zen. Ez zuen haurra onartzen eta azkenean, umea, senarra zein ama atzean utzi eta alde egin zuen. Dena atzean uzteko garaia heldu zen eta askatasunaren bila abiatu zen, aurreko bizitza hori guztia erabat ahaztuz.

Urte batzuetan zehar, amestutako bere bizitza independentea bizi izan zuen, zoriontsu eta iragana ahaztuz. Egund batean ordea, autobus batean dagoela, bi emakume entzuten ditu zerbaitetan berea sentitzen duen hizkuntza batean hizketan; baina berak, aurreko bizitza ahaztu nahian, ama hizkuntza bera ere ahaztuta dauka. Baina adi entzuten jarrita, konturatzen da emakume horiek diotena ulertzen duela, eta hala, ama, jatorria eta iraganarekin gogoratzen da. Honek negar eginarazten dio eta etxeratzean eta nahikoa negar egin ostean, bere istorioa eta haren amarena idatzi behar dituela otutzen zaio. Hau da liburuaren istorioa".

CH. N. hala laburtzen du liburuaren mezua: "Hemen jaio edo hazten diren nesken inguruan hausnartuta, beti izango dute atzerritarrak direnaren sentipena, izan ere, gurasoengandik jasotzen dute kultura bat, baina ez da hemengoaren bera. Beraz, etxean esandakoa eta harrerako herrialdearenak dituzte haien baitan. Eta talka horrek, hemengoa izanda ere, egunero-egunero sentiarazioko die atzerritar eta desberdinak direla.



GIZA LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS HUMANAS



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural